



BARREN
TOKIKOM



Abentura gosez



Maiatzaren 25ean **BARREN-zaleen jai**a ospatuko dugu
Dagoeneko prestaketa lanetan hasi gara,
baina zuokin batera egin nahi dugu.
BARREN denona delako! BARREN denok garelako!

Antolakuntza-lanetan parte hartzeko, eman izena:
barren@elgoibarkoizarra.eus edo **943 744 112**



FAMILIENTZAKO DIRU-LAGUNTZAK HERRIKO HAUR ETA NERABEEK UDAKO AISIA ESKAINTZAN (Ludoteka, Gaztelekua eta Atxutxiamaiak) PARTE HAR DEZATEN.

NORENTZAT:

- * Familia ugariarentzat eta guraso bakarreko familientzat, kuota osoaren %30.
- * Aurreko familia ereduak izan gabe, bigarren seme-alabaren izen-ematea egiten dutenentzat, kuotaren % 30 (bigarren izen-emate honetan).
- * Gizarte izaerako diru-laguntzaren bat (Diru-Sarrerak Bermatzeko Errenta, Diru Sarrerak Bermatzeko Laguntza edo Gizarte Larrialdiko Laguntza) jasotzen duten familientzat, kuotaren %70.

NON ESKATU:

- * HAZen (Herriarren Arreta Zerbitzua), Santa Ana kaleko 2an.

NOIZ ESKATU:

- * Apirilaren 16tik maiatzaren 11ra (Haurrentzako Eskaintza) eta ekainaren 4tik 22ra (Nerabeentzako Eskaintza).



HEZIKETA ZIKLOAK



Informazio saioa:

Apirilak 21 11:00etan

Baieztatzeak: 943748265 www.imh.eus
amaia@imh.eus

INGENIARITZA GRADU DUALA



Informazio saioa:

Apirilak 21 11:00etan

Baieztatzeak: 943748264 www.imh.eus
ingeniaritza.ehu@imh.eus

Dena da berdin

Ezer ez da berdin, eta dena da berdin. Jubilatuen eta pentsiodunen kalera irten dira protestan, garai batean bezala. Aldarrikapena ere bera da. BARRENEN hemerrotekan topatu ditugu, pankarta eskuan, Donostian.

Garaiak aldatu dira, baina dena ez da aldatu. Are, aurrera egin dugula uste arren, beti ez dugu aurrera egin. Hemerrotekan bila ari garela, hara zer topatu dugun BARRENEN 25. zenbakian, 1993ko uztailaren 9an argitaratu genuen hartan: Elgoibarko jubilatuek 1980. urtean Donostian egin zen protesta batean parte hartu zuteneko da argazkia, Manolo Jauregi, orduko jubilatuen presidentea, lagatakoa. Txuribeltzean da argazkia, eta badu zahar usainik, baina ez du alde handirik astelehenero jubilatuen eta pentsiodunen deituta han-hemen egiten dituzten protestetakoekin [Elgoibarren, hil erdiko ostegunetan batzen dira, Kalegoen plazan. Dena den, atzo Herriko Antzokian batzekoak ziren jubilatuen eta pentsiodunenak, besteak beste protesta-ereduaz eta protesten maiztasunaz hitz egiteko, eta lerro hauek idazteko unean, oraindik ez genekien gaur arteko ereduari eutsiko zioten aurrerantzean]. Nolanahi ere, duintasunez bizitzea eskatzen zuten orduan gure jubilatuen eta pentsiodunenak, eta gauza bera eskatzen ari dira orain, aspaldiko protesta jendetsuenetan.



1980an Donostian egindako argazkia. Erretratuan, elgoibartarrak.

Duintasunez bizitzeko eskubide eske

1980ko hartan, autobusak hartu eta Donostiara joan ziren Elgoibarko jubilatuek, eta deialdiak izugarriko erantzuna izan zuten. Manifestazioan irten ziren, eta Espainiako Gobernu Zibilaren erai-kinaren aurrean geldialdia egin zuten eta pankartak zabaldu zituzten: "Jubilados de Elgoibar no queremos limosnas. Exigimos cumplimiento del artículo 50 de la Constitución." (Elgoibarko jubilatuek ez dugu limosnarik eskatzen. Konstituzioko 50. artikulua betetzea exijitzen dugu) irakur daiteke pankartan, gaztelaniaz. Konstituzioko artikulua horrek dio herritar guztiak dutela duintasunez bizitzeko eskubidea, baina nekez bete daiteke hori gure jubilatuen eta pentsiodunenak askok hilean kobratzen dutenarekin. Halaxe ohartarazi ziguten duela gutxi Duintasuna

Gipuzkoako pentsiodunen eta jubilatuen elkarteko Joxe Javier Arregik eta Marian Esnaolak. Otsailaren 2ko alean argitaratu genuen haiekin izandako elkarrizketa, Duintasuna elkartearen aurkeztu zuten egun berean egindakoa. Elkarrizketa hartan ohartarazi ziguten pentsiodunek sei urte daromatxatela erosteko ahalmena galtzen eta etxe askotan gorriak ikusten ari direla [2013. urtetik 2017ra %3,5 egin du behera jubilatuen eta pentsiodunen erosahalmenak]. Espainiako Gobernuak onartutako %0,25eko igoera "miseria bat" dela salatu zuten, eta horregatik, gutxienezko pentsioa 1.080 eurokoa izatea eta Espainiako Gobernuak Gizarte Segurantzako eskuduntza guztiak Eusko Jaurlaritzari transferitzea eskatu.



Joan zen hilean Elgoibarko jubilatuen eta pentsiodunenak Kalegoen Plazan egin zuten protesta ekitaldiaren argazkia.

HARRI & IRRI

Sinesgaitzak



LEHEN GUTXI EZ TA DIN
"ANDRA MERKATU" BAT
LERUN TXIKIN,
CASOLINDEGI TA GUZTI,
SINESGAITZA...

GAUR EGUN
EMATEN DIGUTENA
ZELAN IRENSTEN DÖGUN
IRUDITZEN JATA NERI
SINESGAITZA...

MERCADAMA



ARGITARATZAILEA:



Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR
943 744 112
Publizitatea: 943 743 704
barren.publi@elgoibarkoizarra.eus
barren@elgoibarkoizarra.eus
www.barren.eus

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarki lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskuittzak ataletan adierazita-koen erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia, Irati Agirreazaldegi **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA** Zaloe Amaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Ibon Serrano, Ana Alberdi, Eire Vila, Manu Sanchez, Unai Villena, Iosu Juaristi, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen Ansola, Edurne Izagirre, Alain Ulazia, Paula Heras, Enez Ezenarro, Jesus Jimenez, Mikel Artola, Iñaki Odriozola, Ander Sorluze, Arantza Etxeberria, Irati Agirreazaldegi, Jone Olaizola **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

BARRENEK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANA eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

▶ APIRILAREN 18AN ELKARRETARATZEAK ANBULATEGIETAN

Erraustegiaren Aurkako Mugimen-
duak apirilaren 18rako elkarretaratzeak
antolatu ditu Gipuzkoako anbulategien
aurrian. Azkenaldian erraustegien ingur-
uan argitaratu diren albistek (Anbere-
seko, Estatu Batuetako, Sardinia-
ko, Japoniako eta Mexikoko erraustegien su-
teak adibidez), kezka areagotu besterik
ez dute egin gizartean, batez ere osasu-
narekin erlazio duten albistek. Azken
berria Parisetik jaso dugu, bertako auzi-
tegiak arrazoi eman die Vaux-le-
Penileko erraustegiak kaltetutako 165
herritarrei eta zigor gogorrak ezarri diz-
kio kutsaduraren ardura eduki zuen Me-

luneko mankomunitateari. 2002an egin-
dako ikerketetan dioxinak legez ezarrita-
koa baino 2.200 aldiz gehiago eta
kutsatzaile organiko oso toxikoak antze-
man zituzten.

Gertakari guzti hauek kontuan har-
tzea eskatzen du EAMak, Zubietako
obren berehalako geldialdia eta froga-
tuak dauden alternatiba merke eta osa-
suntsuak ezartzea. Guztion osasuna
bermatzea eta prebentzio printzipioa
ezarri dadila eskatzen da, hala nola, ez-
tabaida publiko eta tekniko bat Eitb-n,
ondoren gizarteak erabaki dezan
proiektu polemiko honen egokitasunaz.
Osasuna bermatu! Erraustegia gelditu!

A.I.Z

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA


BARRENEan edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiak identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inizialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inizialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeek zuzenduriko mehatxak...
6. Ez dugu gaztelaz datarren eskutitzik argitaratuko.



Dorotea Berecibar Ibabe

2018ko apirilaren 6an hil zen, 90 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



I. URTEURRENA Santiago Ansola Arrieta "Azkabe"

2017ko apirilaren 10ean hil zen, 92 urte zituela. Haren oroimenez
I. urteurrenako meza izango da, zapatuan, apirilaren 14an,
19:00etan, Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian.
Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.



IV. URTEURRENA Manuel Loiola Iriondo

2014ko apirilaren 9an hil zen, 82 urte zituela.
Haren oroimenez IV. urteurrenako meza izango da, domekan,
apirilaren 15ean, 12:30ean, Mendaroko Azpilgoetako elizan.
Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.



Astelehenetik aurrera eman ahal izango da izena Atxutxiamaikaren eta ludotekaren udaldian

Atxutxiamaikaren eta ludotekaren udaldiko aisialdi jardueretan izena emateko epea apirilaren 16an hasiko da.

*Apariketane*koak (HH 2, 3 eta 4) eta *Firin-Farane*koak (HH5 eta LH 1) astelehenetik barixakura elkartuko dira elizako arkupeetan eta bi txanda izango dituzte aukeran: ekainaren 25etik uztailaren 6ra eta uztailaren 9tik 20ra (bi txandetan ere joan ahal izango dira). *Apariketane*koek 60 euro ordaindu beharko dute txanda bakoitza eta biengatik 108 euro; *Firin-Farane*koek, berriz, 75 euro eta 135 euro. Bigarren egitasmo honetakoek eguenetan egun osoko irteerak izango dituzte. Goiz txoko zerbitzua ere izango da aukeran 7:30etik 9:00etara. Aurten, HH 2 eta 3koentzat jolas librean oinarritutako programazio pausatua eta pertsonalagoa proposatu dute.

*Abixadane*koak (LH 2 eta 3) 9:00etik 13:00etara Maalan elkartuko dira astelehenetik barixakura, eta eguenetan, egun osoko irteerak egingo dituzte. Hiru txanda izango dituzte hauek aukeran: ekainaren 25etik 29ra, uztailaren 2tik 6ra eta uztailaren 9tik 13ra. Txandako 33 euro ordaindu beharko dute, eta hirurak eginez gero 100 euro. Bestalde, uztaila-



ren 16tik 18ra egonaldia egingo dute aterpetxe batean. 72 eurokoa da kostua, eta hiru txandak eta egonaldia hautatuz gero, 165 eurokoa.

Azkenik, *Aldenik-Aldene*koak (LH 4tik 6ra) uztailaren 2tik 13ra arte izango dituzte jarduerak: astelehenetan goizekoak, martitzenetan arratsaldekoak, eguaztentean egun-pasak eta eguenetan iluntze-pasak. Bestalde, egonaldiak ere izango dira: ekainaren 25etik 28ra, Zuhatzara, eta bestea uztailaren 18tik 20ra (nora ez dute zehaztu oraindik). Zuhatzako egonaldiako 96 euro ordaindu beharko dira; uz-

taileko jardueretarako, 60 euro, eta bigarren egonaldiako, 75 euro. Eskaintza osoa hartuz gero, 208 euro.

Zozketa

*Aldenik-Aldene*koek apirilaren 22ra arteko epea dute izena emateko eta parte-hartzaile kopurua gaituz gero, aurten, estreinako, zozketa egingo dute apirilaren 23an, 18:30ean, Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

Udaldirako izena emateko epea apirilaren 27ra artekoa izango da gainera koentzat eta Elgoibarko Izarran, ludotekan eta www.elgoibarkoizarra.eus webgunean eman ahal izango da izena.

Kuota bi zatitan ordaindu ahal izango dela jakinarazi dute antolatzaileek, baita Udalak diru-laguntzak emango dituela ere: gizarte izaerako diru-laguntzaren bat jasotzen duten familiei kuotaren %70 ordainduko die Udalak eta familia ugarietara eta guraso bakarrekoei %30a, eta beste horrenbeste bigarren seme-alabaren baten izenematea egiten dutenentzat (bigarrenari aplikatuko zaio). Elgoibarko Izarrako eta ludotekako bazkideek %10eko deskontua izango dute zerbitzu guztietan.



Etxe edo eraikinen berritze-lanetarako diru-laguntzen gaineko informazioa, doan



Debegesa garapen agentziak doako informazio zerbitzua eskainiko die euren etxebizitza edo eraikina berritzeko asmoa duten herritarrei. Baldintzen, dokumentazioen, tramiteen edo epeen berri emango diete zerbitzuaren bitartez. Informazioa emateaz gain, eskatuz gero, Debegesa arduratuko da Eusko Jaurlaritzako diru-laguntzen espedienteak tramitatzeaz. Interesatuak, baina, aurrez telefonoz deitu behar dute Debegesera, edo txanda eskatu: 943 82 01 10 (Igor).

Bestalde, egiteko berritze-lanen arabera, herritarrek eskura dituzte lan horiek jasango gaitzak izan daitezkeen oinarriko neurriak jasotzen dituzten fitxak.

Iaz Debegesako birgaitze zerbitzuak 129 kontsulta jaso zituen, eta 75 espediente tramitatu; horietatik 50 eraikinak berritzeko izan ziren, eta 25 etxe partikularrak birgaitzeko.

Zauritu bat Andone Enea etxeko sutean

Martitzen arratsaldean, Urruzuno bailarako Andone Enea etxeko gas neurgailuetan eztanda batek sutea eragin zuen eraikinarren beheko solairuan. 57 urteko gizona bat zauritu zen sutean eta Gurutzetako Ospitalera eraman zuten, erredurekin. Suak kalteak eragin zituen, bereziki garajeetan, eta bizilagun batzuek gaua hotelean igaro behar izan zuten. Instalazioak konpondu ahal, euren etxetara itzultzen ari dira sutean kaltetutako bizilagunak.



Mendaroko Udalak erabilgarri jarriko ditu Eguneko Zentro ondoan dituen hiru apartamentu

Eusko Jaurlaritzak, foru aldundiek eta Eudelek Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazio Zorroa onartu dute. Mapa ere zehaztu dute horren barruan, eta mapa horretan zehazten da herri edo mankomunitate bakoitzak zerbitzu batzuk eskaini behar dituela. Horien artean daude apartamentu tutelatuak. Mendaroko Udalak hiru apartamentu dauzka Azpilgoetan, eguneko zentroaren ondoan. Bina laguntzako apartamentuak dira, mendekotasun arina duten adineko pertsonentzat prestatutakoak. Apartamentu horiek itxita daude orain, baina aurki erabilgarri jarriko ditu Udalak Deba kostaldeko herrietzat (Elgoibar, Mendaro, Deba eta Mutriku). Helburu soziala eta erabilera balioanizta duten bizilekuak dira apartamentuok. Etxebizitza horiek zerbitzu amankomunak dituzte aukeran: alojamendua, otordu zerbitzua eta etxeko laguntza.

Anbolo egunerako izena emateko epea domekara arte luzatu dute

Elgoibarko gazte kuadrillak elkarren artean harremantzeko antolatuta dute Anbolo Eguna Elgoibarko Udalak eta herriko hainbat gaztek, apirilaren 21erako. Egun osoko egitaraua prestatu dute, baina bazkaritarako izena eman behar da. Txartelak domekara arte eskuratu ahal izango dira, epea luzatu dutelako antolatzaileek. Internetez erosi beharko dira www.labur.eus/anboloeguna webgunean, 15 eurotan, prezioa ere bi euroan merketu dutelako.

“Gatazketan, aurkariak zein taldekideek zapaldu dituzte emakumeak”

► MARIA GONZALEZ GOROSARRI KOMUNIKAZIOAN ADITUA

Elgoibarko Udalak antolatutako ‘Bizikidetzaren eraiten’ zikloaren barruan, ‘Gatazkaren ondorioak emakumeengan. Emakumeak bakearen eraikuntzan’ mahai-inguruan parte hartu zuen Maria Gonzalez Gorosarri kazetari eta komunikazioan adituak martitzenean Elgoibarren, Bertha Gaztelumendi kazetariarekin batera. 1945. urte arteko oroimen historikoa landu du Gonzalez Gorosarri, argia genero aldagaian jarrita, eta ondorio garbia ateratu du: ez dituztela andrak aintzat hartu gatazkan eragile aktibo izan direnetan eta aldekoek zein aurkariak zapaldu dituztela.

- AINARA ARGOTIA -

◆ Zergatik da beharrezkoa gatazkaren irakurketa feminista egitea?

Emakumeoi ez zaigulako aitortu eragile izaera eta biktimitzat hartu gaituztelako beti, gehienetan sexu indarkeriaren biktimitzat. Egia da andrazkoak masiboki bortxatu zituztela, baina 36ko gerran, gizonetako ere bortxatu zituzten, Euskal Herrian bertan ere bai. Andren kasuan, baina, beste epaiketa moral bat ere egiten zen. Bortxatzen zituzten emakume haiek ez zuten mutilagunak eta ezkongaririk topatzen herrian, eta hori ez zen izaten Estatuaren edo errepublikaren eraginez. Euren aldekoek ere ez zituzten begi onez ikusten. Beraz, esan dezakegu emakume haien kideek ere aurkariarekin bat egin zutela errepublikoan.

Alemaniko kontzentrazio zelaietan, adibidez, Hitlerrek presoentzako “bestelako zerbitzuak” sortu zituen, presoek prostituzioa esaten ziotenak. Bada, Mauthausenen egondako preso errepublikano espainiarrek bertan bizitako kontakutako zutela agindio zioten elkarri, baina denek pasarte bera “ahaztu” zuten kontakutara: eurentako batek prostituzio zerbitzuen



gatik SS-er bi marko ordaindu zizkienekoa emakume bat bortxatzeagatik. Bi marko ordaindu zituen preso hark eta SSkoek espainiar nazionalitateko beste preso emakumezko bat eramane zioten Ravensbrücketik, bortxa zezan. Naziek sortu zuten zerbitzua, baina kontua da preso errepublikanoetako batek horri heldu ziola eta gainerakoak ez zutela sekula horren gainean hitz erdi bat esan.

Historia idatzi dutenek, gizonak, ahaztu egin gaituzte, eta ez da justiziazkoa.

◆ Emakumeek zer bide zituzten horri aurre egiteko?

Elkartasun sareak sortu eta ahizpatasuna garatu dute beti emakume errepublikanoek. Derrigorrak eramane zioten euren arteko sareak antolatuz, sarri euren al-

derdiko gizonak ere ezkusia egin zitezela. Espetxeetan, hirukoteka antolatzen ziren andrak: gaztea izaten zen bat, hiruko horretan irakurtzen zekien bakarra normalean; beste bat tokian tokiko preso izaten zen, zigor-lekutik gertuko izanda, sarriago eramane ziotelako etxeetara; eta hirugarrena, adinekoa izaten zen, eta taldea emozionalki eta politikoki babestea izaten zen bere egitekoa. Saturrararen preso egondako Rosario Dominitera madrildarra elkarrizketatzen nuen behin. Rosariori 19:00etan esan zioten Saturrarandik irtengo zela, eta berak kontatu zidan espetxetik erabat galduta irteten zenean, ez non zegoen ez nora jo ez zekiela zegoenean, poltsikoan paper bat topatu zuela tokiko preso kide batek idatzia. Bere etxeko helbidea eman zion lagunak eta han egin zuen astebete Rosa-

riok. Ahizpatasunean oinarritutako sareak beti egon dira emakume militanteen artean, kultura militante hori beti izan dutelako. Emakume presoek ez zuten sekula gizonetzko kideen babesik izan horretarako. Are, bikotekidea zuten emakumeek ere laguna galdu ohi zuten preso hartzen zituzten unean. Kontrara, baina, gizonak, preso sartuta ere, nekez galtzen zuten bikotekidea. Beraz, presoaren emaztea figura existitzen da, emakumea delako borrokalaria horri babesia eta atsedena ematen diona, baina presoaren senarra ez da existitzen. Eta horrek zer eragiten du? Batetik, emakumea heriotza afektibora kondenatzen dela, eta gainera, emakumeen izaera politikoa ezeztatuta, haien kideek Estatuari laguntzen diotela.

♦ **Kartzelak ere diferenteak ziren. Kartzelak gauza bera bilatzen zuten emakumeentzat eta gizonentzat?**

Ez. Estatuak ez zuten andren izaera politikoa aintzat hartzen. Hau da, ez zituzten zigortzen gerran edo politikan parte hartzeagatik, baizik eta gerran parte hartzen ari ziren gizonen laguntzeagatik, eta hori, jakina, bazen andrak ahulago egiteko modua. Frankismoak bi delitu berri ere ezarri zituen: prostituzio librea, hau da proxenetarik gabeko prostituzioa, eta abortua. Orduan, 30eko hamarkadan, arrazoi politikoengatik kartzelatu zituzten emakumeek beste bi delitu horienagatik zigortu zituztenekin partekatzen zuten espetxea. Beraz, gizonak beti gerra presoak ziren, baina andrazkoak ez. Eta bada gehiago ere. Gizonentzako espetxeak espetxeak ziren, baina andrazkoentzako zigor-lekuak etxeak edo komenturak ziren. Haien jokabidea "zuzendu" nahi zuten Estatuak eta horregatik komentutan sartzen zituzten, eta kartzeleroak, jakina, mojak izaten ziren kasurik gehienetan. Estatuak ez zituen andre antifaxistak zigortu nahi, "berriro hezi" baizik. Andrazkoentzako zigor-lekuei "emakumeentzako biltegiak" deitzen zieten, eta gizonentzako espetxeak baino azpiegitura eskasagoak izaten ziren. Andrek lurra pilatuta egiten zuten lo. Saturrararen, andre bakoitzak baldosa bat eta erdiko lekua zuten, bere-

tzat eta umearentzat, ama zirenen kasuan. Hori ere badagoelako: Estatuak seme-alabak zaintzeko ardura arintzen zien gizon presoek, haurrak amekin batera kartzelatzeari.

♦ **Frankismoaz ari gara, baina orain ere, euskal gatazkaren konponbide aroan-edo, atzeman daitezke egiturazko indarkeria batzuk, pribatuak deitzen dituzunak. Eta bi: gatazka gizonekin lotzen bada, bakea bera gizonen artean sinatu beharreko zerbait dela ikusiko duenik ere izango da.**

Bai. Oihana Etxebarrietak nik baino gehiago idatzi du horretaz. Berak dio gatazkaren konponbideaz jardutean, bakea gerraren absentiarekin erlazionatzen jarraitzen dela, eta beraz, horrek, gatazkaren adierazpen bortitzei bakarrik aurre egitea daramala. Hau da, ahaztu egiten dela, surik egon gabe ere, emakumeak indarkeri handia jasaten dutela. Berak dio gerra-bakea dikotomiaren ordean, biolentzia-bakea bezalako terminoak egokiagoak direla. Nik garbi daukat bakea bera ere Estatuak finkatzen duela. Frankismoan, bere garaipenaldia zehazteko erabili zuten bakea terminoa.

"Emakumeen kideek eurek Estatuari lagundu diote, emakumeen izaera politikoa ezeztatuta"

♦ **'Emakumeak bakearen eraikuntzan' dio mahai-inguruaren izenburuaren bigarren zatia. Zer esatera zatozte?**

Nire diskurtsoa ez da ezberdintasunaren feminismoarena, umetokia daukagunez andrazkoak bakezaleak garela dion teoriaren diskurtsoa. Nik uste dut garatu ditugun estrategiak biziraun nahiagatik garatu ditugula, bakar-bakarrik egon garelako, eta ez andrazkoak sortzez bakezaleak garelako.

♦ **Ahotsak-i buruz galdetu nahi nizun, alderdi ezberdinetako emakumeak bildu zituen ekimen hari buruz. Iruditzen zaizu hura bezalako ahaleginak behar bezala baloratu direla?**

Ahotsak-en kasua ez dut aztertu, baina egia da gabezia bat izan zuela: han parte hartu zuten andrek ezin izan zutelako alderdiko kide moduan parte hartu, baizik eta nor bere izenean. Eta iruditzen zait ahalegin hura eraginkorragoa izan zedin emakume haiek euren alderdietako buruzagitzetan ere egon beharra zutela. 36ko kasuan, emakumeak bota egin zituzten sindikatuetako buruzagitzetatik, eta hori ez zuten Frankismoak egin, baizik eta euren kideek.

♦ **Buruzagitza aipatu duzula, Dolores Gonzalez Katarain 'Yoyes' ETAko buruzagia etorri zait burura. 1986an hil zuten erakundeak. Ez al du bere kasuak batzen zuk esandakoetako asko?**

Bai. ETAk hil zuen, eta hil aurretik, haren izaera politikoaren desakreditazio publiko bortitza ere egin zuen. 'Yoyes chivata, Yoyes traidora' zioten pintadak agertu ziren bere herriko kaleetan eta bera izan zen ETAk hildakoen artean halako desakreditazioa jasan behar izan zuen bakarra. Herrian bertan jazarri zuten, bere semearen aurrean hiltzeko. 1936an, bazegoen beste buruzagi andrazko bat, Dolores Ibarruri, antzeko zerbait bizi izan zuena. Dolores Ibarruri ezkondua zegoen, bost seme-alaba izan zituen, eta 40 urte gaz, banandu eta Madrilera joan zen politikan jardutera. Han, bera baino 20 urte gazteagoa zen kide batekin hasi zen, eta harekin joan zen erbestera. Bada, kontua da 40 urte zituela bere bizitzako bigarren bikotekide sexuala izango zutenarekin hasi zenean eta Santiago Carrillok eta beste zenbaitek *La puta vieja* deitu ziotela beti horregatik bere izenez barik. *La puta vieja* izan ziren Rosa Luxemburg hiltzeko bere bila joan zen talde paramilitarrekoek Rosa identifikatzeko baliatu zituzten berbak ere. Kurioso da: eskumako muturrekoek ezkerreko muturrekoen adjetibo berdinak erabiltzen dituztela andrazkoak deslejitimatzen.



Zuen kexak, galderak edo txaloak bidaltzeko: barren@elgoibarkoizarra.eus - 943 744 112



Sigmako autobus geltokia: "Sigmako auzoan, zubi berriaren azpian ipini duten autobus geltokiaren ingurukoa da nire kexa. Geltokia lurrian marrazturiko letra batzuekin dago adierazita bakar-bakarrik. Ez dago inolako babes edo aterperik, ezta jarlekurik ere. Horrelako geltokiak ez daude prestatuta adinekoentzako edo behar bereziak dituen jendearentzako". Udaletik adierazi dute aztertuko dutela ea zer ipini dezaketen, markesinaren bat edo beste zerbait, nolabait estaltzeko.

Goardiako farmaziak kanpoan: "Benetan lotsagarria da, Elgoibarren lau farmazia egonda, astebukaeretan, beste herri batera joan behar izatea botikak erostera. Gure kabuz joateko modua daukagunontzat, sekulako nahastea bada, pentsa aurturik ez dutenez zer den! Lan handia al da, herrian lau farmazia edukita, hilean behin, bakoitzak goardia bat egitea? Beste herrietan farmazia bakarra egotea ez da elgoibartarron arazoa! Jasan ezina da egoera hau, aski da!

Txakur kakak: "Urazandin, Herri Eskolaren sarrerako gaineko aldean dagoen parkea, txakur kakaz beteta egoten da. Han paseatzen ibiltzen garenok behin baino gehiagotan joan gara etxera oinetakoak kakaz zikinduta. Txakur jabeak plastikozko poltsak bistan dituztela ibiltzen diren arren, badirudi itxura egiteko besterik ez dela izaten, askok ez dituztelako jasotzen. Beraz, jakin nahi nuke honi aurre egiteko Udalak zigorrik edo zerga berezirik jartzen dien jabeek edo jartzeko asmorik ba ote duen". Udaltzainek egiten dituzte kanpainak jabeek txakur kakak jasotzen dituzten, txakurrak lotuta eramaten dituzten, mikrotxipik baduten... zaintzeko, eta isuna ere badago zehaztuta araudia betetzen ez duenarentzat, 50 eurokoa, baina udaltzainak aurrean direnean, jendeak betetzen du itxuraz araudia.



Zebra bide berri bat Urazandin: "Urazandin, Morkaiku kalearen ondoan, zebra bidea egin du Udalak handik Maalako errotondarantz joaten den tokiko espaloiek bat eginez. Horrek oinezkoei bidea errazten eta erositzen die eta bestela arriskutsua zen tartea ziurrago bihurtu. Beraz, egindako lana eskertu nahi nuke, oinezko zein gidari gisa".

Ikastolaren esker ona: "Mufomikoei, Udal Liburutegikoei eta Historiaurreko Errepliken Museokoei eskerrak eman nahi dizkiegu Ikastolaren eta batez ere parte hartu zuten neska-mutil guztien izenean, beraingana egindako bisitetan guri eskainitako denborarengatik eta emandako azalpenen eta informazioarengatik. Oso interesgarria eta aberasgarria iruditu zitzaigun, eta oso gustura egon ginen. Eskerrik asko".

► Ekainaren 10erako, Euskal Herrian inoiz egin den mobilizazio handiena iragarri du Gure Esku Dagok, eta parte hartzera deitu

Beste erronka handi bati heldu dio Gure Esku Dago mugimenduak, erabakitze eskubidearen alde hasitako bidean: ekainaren 10ean, Donostia, Bilbo eta Gasteiz arteko 201,9 kilometroko giza katea osatu nahi du, eta horretarako, gutxienez ehun mila lagun mobilizatu nahi ditu [kilometroko 500 lagun. Elgoibarri eta Mendarori dagozkion hiru kilometroak osatzeko, 1.500 lagun gutxienez]. Giza katea Eusko Legebiltzarren atarian amaituko da, eta kate hori antolatzeko eta mugimendua bera finantzatzeko behar-beharrezkoa da sare ratzea; izena ematea alegia. Eta izenak hartzen hasiak dira herrietako taldeak. Izena emateko bost euro ordaindu beharko dira, eta trukean, izena ematen dutenek zapia jasoko dute. Herrietan emango dute horretarako aukera, baina baita Internet bidez ere, www.gureeskudago.eus webgunean.

Donostia-Bilbo-Gasteiz ibilbidea hautatzeko orduan, gure erki-dego honetako testuingurua hartu du kontuan Gure Esku Dagok, Angel Oiarbide berak aurkezpenean esan zuen bezala: "Aurten Araban, Bizkaia eta Gipuzkoan ikusi ditugu baldintzak eta testuingurua dimentsio honetako mobilizazio bat antolatzeko". Eusko Legebiltzarrean eztabaidatzen ari diren Autogobernu Ponentzian eragin nahi du Gure Esku Dagok, eta bide batez, Euskal Herriko beste lurraldeetan erabakitze eskubidea gauzatu dadin baldintzak sortzea.



kuntza lanetan parte hartu nahiko balu, egun horretan du horretarako aukera, Sotora agertuta.

Elgoibar

201,9 kilometroko katean, 65 eta 66. kilometroak osatzea dagokio Elgoibarri, zehazki Melitondik Sigma arteko bide-zatia. Eta bi kilometro izanda antolatu beharrekoak, gutxienez, 1.000 lagun sartzeko erronkari heldu dio Elgoibarko Gure Esku Dago batzordeak. Eta hasi dira eginkizun horretan. Bihar, apirilaren 14an, mahaia jarriko dute Kalegoen plazan, 12:00etatik 15:00etara. Ez da, baina, Elgoibarren izena emateko aukera bakarra izango biharkoa. Izan ere, ondorengo egun hauetan ere irtengo dira kalera: Apirilaren 21ean (larunbata), maiatzaren 4, 11, 25, eta 26an, eta ekainaren 1, 2, 9 eta 10ean. Ostiraletan, 17:00etatik 20:00etara egongo dira mahaian, eta zapatuetan, 12:00etatik 15:00etara. Bestalde, apirilaren 18an, asteazkenean, Kultur Etxeko sotoan batuko dira Gure Esku Dago batzordekoak, 19:00etatik 21:00ak bitartean. Beraz, herritarren batek informazio gehiago jaso nahiko balu edo giza katearen antola-

Mendaro

500 lagun inguratu behar ditu Mendarok ekainaren 10eko giza-katean dagokion zatia betetzeko; lau herritarretatik bat, beraz, kontuan izanda Mendarok 2.000 biztanle eskas dituela. 60. kilometroa da Mendarori dagokiona, Mendaroko Txokolateri paretik hasi eta Lanbi enpresa pare arteko zatia, eta jakina, mendarorak ere hasi dira bere parte antolatzen. Estreinakoz bihar aterako dute mahaia kalera, 16:00etan, Mendaroko Kilimon Trail mendi lasterketa hasten den ordurako eta 19:00ak arte egongo dira boluntarioak giza-katerako jendearen izen-abizenak hartzen eta Gure Esku Dagoren materiala saltzen. Oraindik zehaztu gabe dute zein beste egunetan irtengo diren kalera, baina argi utzi dute herritarrek izango dutela aukera gehiago ere izena emateko. Era berean, ekainaren 10era begirako dauden lanak kontuan hartuta, laguntzaileak ere eskatu dituzte, eta harramenetarako posta elektronikoko bat zabaldu dute: Mendaroged@gmail.com.



munduan

Mendarotik hegoalderako norabidean

Oporrak atseden egunak izan ohi dira askorentzat; beste batzuek, ordea, abentura, lana eta baloreak uztartzen dituzte egun horietan. Enara eta Irati Agirrezabala Etxaniz mendaroarren oporretako plana da hori, *Rumbo al sur* egitasmoaren baitan. Telmo Aldaz de la Cuadra-Salcedok gidatzen duen fundazioak martxan jarri zuen espedizioa da, eta urtero 16 eta 17 urteko gazteek bidaia bat egiten dute. Bidaia, hori, baina, ez da turismo hutsa. Abenturaz gozatzeaz gain, gazteei baloreak transmititzea eta horiekin mundua aldatu eta hobetu daitekeela erakustea du helburu. Iaz izan zen Enara Marokon, eta Irati Ugandara joateko dirua biltzen ari da.

Mendarotik abiatu eta hamabost egun inguruko abentura biziko du Irati Agirrezabala Etxanizek uztaillean, Ugandan. Rumbo al sur fundazioa da bere gidari, eta bidaia irakasgai nagusia bada ere, gazteak baloreetan hezi eta aberastu nahi ditu fundazio horrek. Iratiren ahizpa Enara iaz izan zen Rumbo al surrekoekin Marokon, eta berak argi ikusi du helburu hori beteta bere esperientzian. Momentua bizi egin behar dela, gutxirekin asko egin daitekeela... ikasi zituen, besteak beste.

Gutxirekin asko egin daiteke, bai, eta hortaz ohartu zen Irati Done Jakue bidea amarekin eta ahizparekin egin zuenean. "Ahizpak izena emateko animatu arren, nik ezetz esaten nion. Baina egun batean informazio bila hasi eta joatea erabaki



nuen". Enarari irrika bestela piztu zitzaion, lagun batek esan zionean Elgoibarko neska bat basamortura joan zela. Dutzarik gabe, urik gabe, lo egin gabe, sakelekorik gabe...egon zela entzun eta abentura gogoia piztu zitzaion. Irati bere burua hobeto ezagutzera, esperientzia bizitzera eta Ugandako jendea eta kultura ezagutzera joango da.

Abenturan parte hartzeko, baina, hainbat baldintza bete behar dira. Besteak beste bidaia norbere poltsikotik ordaindu behar dute partehartzaileek, baina ez du balio bidaia ordaintzeko gurasoek emandako dirua baliatzea. Autofinantziazio bi-

deak bilatu behar dituzte gazteak. BARRENEKO banatzaile dira Enara eta Irati Mendaron, eta lan hori baliatu du diru pixkat egiteko. Baina 1.500 euro behar ditu bidairako, eta gehiago, materialerako, beraz, hainbat ekintza egiten dihardu lortzeko. "Izena eman nuenetik, webgune batean sartu, eta astero, hitzaldiak ematen dizkigute bideo bidez, motibatuzko eta gure denbora antolatuzko. Dirua lortzeko moduak ere esaten dizkigute eta tutore batek galdetzen dit diru-bilketari dagokionez nola noan". Besteak beste proposatu zioten zeukan arroparen parte bat dohaintzian ematea eta beste arropa batzuk

*“Mentalki Ugandara
joateko prest nagoela
uste dut, nahiz eta etxetik
kanpo, udalekuetan-eta,
ez naizen sekula egon”*

- Irati Agirrezabala -

Mendaroko bigarren eskuko azokan saldu zituen. Laguntzako afari bat ere antolatu zuen eta kobratu egin zien. Fundazioak emandako errifak eta pultserak ere saltzen ari da, eta hainbat gaztaren pisua asmatzeko lehiaketa ere egin du. Bestalde, bloga (<https://bitacora.espanarumboalsur.com/chavales/irati-agirrezabala>) ere prestatu du bere burua eta egitasmoa aurkezteko eta diru-laguntza eske enpresetara bidaltzeko. Enpresei ez ezik jendeari eman nahi dio proiektuaren berri. “Ni naiz Gipuzkoako partaide bakarra, eta tristea da. Ez dakit zergatik. Jendeak ez du interesik jartzen udan egin ditzakeen horrelako egitasmoetan. Nahiago du jakitea zein festataro joango den”, dio Iratik. Orain arte proiektuarekin lotutako ekintzekin lagundu diotelako pozik dago, baina diru gehiago eskuratu behar duenez, aurrerantzean ere esker-tuko du laguntza. “500 euro falta zaizkit espediziorako, eta horrez gain, materiala erosi behar dut. Oinarrizko arropa eramanez, sendagaiak, kremak, barratxo energetikoak... eramanez behar ditut, ahizpak hala esanda. Bestalde, txertoak ere hartu behar ditut. Beraz, hobe gehiago lortzea. Dirua *sobratuz* gero, beste batzuei eman diezaiek: gobernuak kanpoko erakundeak, fundazioak edo bidaiarako diru guztia lortu ez duten espediziokideak”.

Bidaia aurreko prestakuntza

Dirua beharrezkoa da bidaian joateko, baina horrelako espedizio batek bestelako prestakuntzak ere eskatzen ditu. Enarak iaz Toledon egin zituen jarduerak bidaia nolako izan zitekeen ikusteko eta batzuek orduan utzi zuten egitasmoa. “Proba fisiko eta mentalak egin zizkiguten. Esaterako, eskuak bridekin lotuta igerilekura salto egitea, uretatik erreskatatzea, goizeko ordubatean oinez 10 kilometro egitea euripean... Taldeka jarri eta motibazioa ere landu genuen aurrera egiteko, gidari izateko... Armadak lagundu zigun eta nik armadari buruz ideia bat neukan arren, lagun gisa aritu ziren gurekin”.

Ekainaren amaieran egingo ditu Iratik

prestatuntza probak, eta sufrituko duela uste duen arren, ez du pentsatzen atzera egingo duenik. “Mentalki uste dut Ugandara joateko prest nagoela, nahiz eta etxetik kanpo, udalekutan-eta, sekula egon ez naizenez jendearekin harremanak izateko zalantzak eduki. Fisikoki izan ditzaket zailtasunak, iaz utzi bainion kirola egiteari; beraz, hasi beharko naiz prestatzen”. Enarak ere aholku hori eman dio: fisikoki pixka bat gehiago prestatuta egotea, atzera geldi ez dadin.

Ahizparen bizipenak jakintza iturri izango zaizkio espedizioa nolako izan daitekeen irudikatzen. Iaz hango bizilagunekin egon ziren eta oso aberasgarria izan zitzaien. Bereberek eurentzako ere ezer gutxi izan arren, esnea, tea eta ogia ematen zieten; Hori bai, hango umeak ohituak zeuden turistek eskean ibiltzeko, baina aurrez antolatzaileek agindua zuten ezer ez emateko. Aurten, oraindik esan ez badiete ere, norbere garapena lantzeari baino kooperazioari gehiago erreparatuko dietela uste dute, han lanean diharduten elkarteak laguntzeari alegia.

Marokon egarritz

Enarak Marokora egin zuen espedizioa, Atlasetik basamortura, baina nondik nora joango ziren zehazki jakin gabe. “Beraiek nahi dutena da guk momentua bizitzea. Ez genekien jango eta edango genuen, non lo egingo genuen... Hasi-ran zalantza izan arren, garbi daukat asko ikasi genuela”.

Ideiak ahizparen iturritik jaso asmo ditu Iratik, eta paradajikoa bada ere, iturrien falta izan zuen Enarak han. “Urik apenas geneukan. Errekatxoetan hartzen genuen eta edateko ur bihurtzeko pastillak edo filtroak erabiltzen genituen. Tankeak ere ahal zutenean betetzen zituzten, eta han

beste bakterio batzuk daudenez, horiek hiltzeko lixiba pixka bat botatzen zieten. Beraz, lixiba zaporeduna edaten genuen. Biziraupen amarruak azaldu zizkiguten: galtzerdi batekin filtroak egiten, sua egiten, kanpin denda edo babesleku bat egiten... Monitorea esperientzia handia dute, asko aurrez egondakoak baitira”, azaldu digu Enarak. Ur eskasiak eta jatekoak hondarra izateak moteldu egin zituen, baina. Nekea mentala zen batik bat. “Zakua jartzera gelditu eta goizaldeko hiruretan film bat ikusteko dei egiten ziguten eta ezin genuen lo hartu eta goizeko seiretan esnatzen gintuzten, bost minutuan prestatu, korrika joan, ariretak egin eta gero gosaltzen genuen aukerarik bazegoen”. Entrenatzaile zorrotzik bazegoela ere aitortu digu, baina baita sosegua ematen zienik ere, Fundazioko buru den eta orain *El Conquistador del Caribe* telebista saioan hain ezagun egin den Telmo Aldaz bera esaterako.

Gogorra bezain gozagarria izan zen Enarentzat iazko bidaia. Amak bueltan espedizioa puntuatzeko eskatu zionean ez zion erantzuten jakin, momentu oso txarrak zein oso onak izan zituelako, baina garbi zuen eta du berri ere joango litzatekeela, besteak beste jendearekin izandako harremanengatik. “Gaizki pasatzea ondo pasatzea ere bada. Gaizki pasatu eta gero ikusten da nola gaingitu dugun hori eta horrek barrutik erabat betetze gaitu. Bueltan argalduta eta begizuloekin itzuli ginen, baina begietan dizdira bereziarekin”.

Enarari basamortuan lo egitea gustatu zitzaion gehien, eta ahizpari bizi-pen politik kontatu arren, Irati ez dago guztiz lasai. Ez dio horri txarrik ikusten, baina, ahizpa nagusiak: “Ez da lasaitu behar, bestela gaizki pasatuko du. Hobe da orain estutzea, gero konturatu delako ez dela berak irudikatu bezain gogorra”. Beste 120 kiderekin egingo du espedizioa Iratik eta oraingo Ugandari buruz askorik jakin gabe eta helburu zehatzik gabe abiatuko da. “Abentura bizi izatera joango naiz”.

Hilabetean kontzertu bat eskainiko dute Sutegixa gaztetxean gaurtik aurrera



Donostiako Alvert Cavalier ariuko da gaur gaztetxean.

Orain artean Sinuosek egiten duen bezala, hemendik aurrera Sutegixa gaztetxean ere hilabetean behin kontzertuak eskaintzen hasiko dira. Hain zuzen ere, Sinuoseko Sotoko Hotsak emanaldiekin tartekatuko dituzte kontzertuak, beraz, gutxi gorabehera eskala bertsuko bi saio izango dira hilabetean Elgoibarren. Hori da gaztetxean kontzertuak antolatzen hasi direnen asmoa: musika estiloak ezberdinak izanik, askotariko emanaldiak zuzenean entzuteko aukera eskaintzea Sinuosekoekin batera herriko musika zaleei, nahiz eta eskala txikiagoan izan.

Lehen kontzertua Donostiako Albert Cavalier taldeak eskainiko du gaur, barixakua, 23:00etan, gaztetxean. Rock abesti klasikoek bertsionatzen zituen laukote gazte donostiarra gogotsu dabil *garage* estiloko abestiak sortzen eta melodiak indartsu eta lotsagabeak dira. Sumatzen da Albert Cavalierrek etorkizun hurbilean emango duela zeresanik. Beraz, musika arloan tokia hartzen ari den talde hau bertatik bertara entzuteko aukera izango da Sutegixan.

Datak oraindik zehaztu gabe badituzte ere, ekainera bitarteko datozen bi taldeak zein izango diren ere aurreratu dute gaztetxeik. Maiatzean, askotariko eskal abestiak bertsionatzen dituen Talka talde akustikoa ariuko da. Ekainean, berriz, bertso-rock estilo deigarriaren erreferente den Bi Balak eskainiko du kontzertua.

The Riff Truckers Sotoan

Maiatzeko kontzertu saioa Sinuoseren Sotoko Hotsak jardunaldiak borobilduko du datorren barixakuan, apirilaren 20an, Kultur Etxeko Sotoan, 23:00etan. The Riff Truckers, Bizkaiko rock&roll taldearena izango da emanaldia. Rock doinuei blues eta country ukituak ere emango dizkiete. *Over the Edge* bost abestiko disko berria aurkeztuko dute kontzertuan. Abesti bakoitzak, musikari dagokionez, identitate propioa izan arren aurreko lanetako identitate bertsua mantendu dute. Disko berria martxan jartzean taldean ezik hainbat aldaketa egin dituzte gitarra joleei dagokionez, baina aurkezpenarekin batera, berriz helduko diote taldearen azken partaideekin.

Abian da euskarazko idazlan lehiaketa

Ikasleen euskaraz idazteko trebetasuna sustatzeko idazlan lehiaketa antolatu du Elgoibarko Udalak. 8 eta 18 urte bitarteko ikasleentzat izango da. Ikastetxean edo Udalaren Kultura sailean aurkeztu beharko dira lanak maiatzaren 4a baino lehen. Gaia libre izango da, baina euskaraz idatzia, jatorrizkoa eta aurrez saritu edo argitaratu gabea izan beharko da. Saritzat 50 eta 120 euro bitarteko 28 bono banatuko dituzte herriko dendetan gastatu ahal izateko. Udaleko webgunean jasota daude idazlan lehiaketan parte hartzeko baldintzak.

'Hiru ipuin' umeen antzezlan, domekan

Tomaxen abenturak ikusteko aukera izango dute herriko txikiek domekan, 16:30ean, Elgoibarko Herriko Antzokian. Tomax liburutegira joateko kontzertu du Muxugorrik, eta han ipuinetatik *Txanogorritxu*, *Hiru txerri txoak* eta *Hamelingo txirularia* beren erara antzeztuko dituzte barrezka, kantuz dantzan eta magiarekin.

Bertso barrikotea Kimetzen Uxue Alberdi eta Unai Iturriagarekin

Bertso afaria izango da apirilaren 21ean, Kimetz elkartean, 21:00etan. Iturri tabernan elkartuko dira aurrez potea egiteko, 20:00etan. Elkartean entsalada, arraina, txuleta, postrea eta kafea afaldu ondoren, Uxue Alberdi eta Unai Iturriaga bertsotan entzun ahal izango dituzte bertaratzen direnek. Txartelak salgai daude 35 euroan (langabetuek eta gazteek 30 euro) Iturri, Lanbroa eta Jai-Alai tabernetan.

Elgoibarko Trinitateetako danborradan parte hartzeko izenematea zabalik dago

Maiatzaren 26an, 23:00etan, danborhotsak berriz ere entzungo dira Elgoibarko kaleetan. Beraz, antolatzaileek deialdia egin dute zeinek parte hartu nahi duen jakiteko. Apirilaren 20a baino lehen eman behar da izena Eizagirre okindegian, Danborradako elkartearen postontzian edo elgoibardanborrada@gmail.com e-posta helbidean. Izen-abizenak, helbidea, telefono zenbakia eta e-posta helbidea adierazteaz gain, egun horretan Maalako parkeko aforan parte hartu nahi duten zehaztu beharko dute interesatuek.



Zerrendak osatu ondoren, entseguak maiatzean hasiko dituzte. 14an aurkezpena egingo dute, eta danbor zein barril joleen entseguak 21:30ean izango dira Merkatu Plazako atikoan, honako egunetan: 14, 15, 16, 17, 21, 22, 23, 24.

Arropari dagokionez, orain arte parte hartu dutenek maiatzaren 15ean edo 16an jaso ahal izango dituzte Danborradaren Pista Beltzeko lokalean 19:00etatik 20:00etara; itzuli, berriz, ekainaren 5ean eta 6an. Partehartzaile berrien txanda maiatzaren 19an izango da, leku berean, 11:00etatik 13:00etara bitartean,.

Kartel lehiaketa

Apirilaren 23ra arte zabalik dago danborradarako kartel lehiaketarako lanak aurkezteko epea. 18 urtetik gorako edozeinek parte har dezake, eta lanak Kultur Etxean aurkeztu beharko dira. Irabazleari 300 euroko saria emango diote.

Uxue Alberdik irabazi du 111 Akademiaren saria

Euskal Herriko literaturazaleen bilgunea da 111 Akademia eta 200 irakurlek parte hartzen dute egitasmoan. Hiru bozketa txandetan egin dute aukeraketa. Lehenengoan 2017an gogokoen izan zuten liburuen alde botoa emateko eskatu zitzaizkien akademiakideei, baina saridun izendatzeko behar zen botoen %30a lortu zuen obrarik egon ez zenez, akademiak ohiko prozedura jarraitu eta beste bi txanda egin zituen. Azken txandan Uxue Alberdiren *Jenis Joplin* eta Maddi Zubeldiaren *Deserria* hautzaroz izan ziren bi finalistak, eta Alberdiren lana izan da irabazle.

Udal Musika Bandaren kontzertua domekan

Apirilaren 15ean, 12:30ean, musika emanaldia eskainiko Udal Musika Bandak Elgoibarko Herriko Antzokian. Gorka Mujikaren zuzendaritzapean honako piezak entzun ahal izango dituzte joaten direnek: *Al Centenario* (Ferrer Ferran), *The great locomotive chase* (R. Smith), *El ruiseñor de la huerta* (L. Magenti) -jendearen eskariz joko dutena-, *A Scottish rhapsody* (C. Grundman) eta *The Eighties* (J. Higgins).

Egur arte tailerreko umeen lanak ikusgai

Erakusketa berri bat irekiko dute gaur, barixakuan. Egur arte tailerreko umeen arte-lanak ipiniko dituzte ikusgai Kultur Etxeko erakusketa gelan. Apirilaren 21era bitartean egongo da ikusgai, asteleheneetik zapatara, egunero 18:30etik 20:30era.

Uxue Alberdirekin solasaldia Mendaroko liburutegian

Uxue Alberdi idazle, kazetari eta bertso-lari elgoibartarra elkarrizketatuko du Ainara Argoiti kazetariak Mendaroko Udal Liburutegian apirilaren 18an, 18:00etan. *Jenis Joplin* bere azken eleberria aitzakiatzat hartuta Alberdiren ibilbidea izango dute hizpide. Bizitzaz, literaturaz, bertsolaritzaz, irabazi dituen sarietat eta beste hainbat gaietat jakiteko aukera izango dute liburutegira gerturatzen direnek.



Nieves Orbea Eguia

2018ko apirilaren 7an hil zen, 79 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



Decak Olaizagan jokatu du Espainiako Eskubaloitxapelketaren Lauko Finala



Sanlok antolatuko du Espainiako Eskubaloitxapelketako jubenil mutilen Lauko Finaletako bat, D sektoreari dagokiona, hain justu ere. Bertan lehiatuko da etxeko taldea, Deca. Elgoibartarrek Logroñoko Knet Calasancio, Zaragozako B.M. Calasancio eta Bartzelonako Barcelona Lassa taldeak izango dituzte aurkari, Olaizaga kiroldegian. Gaur (apirilak 13) jokatu dute Errioxako taldearen aurkako neurketa, 19:30ean. Zapatuan jokatu dute aragoarren aurka, 17:45ean; eta, domekan izango da Bartzelonaren aurkako partida, 11:45ean. Sanlok kiroldegira joateko dei egin die zaleei eta herritarrei. Hala ere, joan ezin dutenek ere jarraitu ahal izango dituzte Olaizagan jokatu diren partidak, Sanlok bere webgunean emango baititu zuzenean. Euskadiko Txapelketa irabazi berri duen Tecnifuelle taldeak, berriz, Burlatan jokatu den Lauko Finalean hartuko du parte, gaurtik domekara bitartean. Elgoibartarrek Malkaitz talde nafarra, Kanarietako Caima eta Bartzelonako Sant Vicenc izango dituzte aurkari.

Ampo taldeko Xabier Berasategik irabazi du Elgoibar Hiria Saria txirrindulari lasterketa



Xabier Berasategi Garmendiak (Ampo-Goierriko TB) bi ordu bost minutu eta segundu batean osatu zituen jubenil mailako txirrindularientzako 38. Elgoibarko Hiria Saria txirrindularitza lasterketako 93,5 kilometroak, joan zen apirilaren 8an. Berasategik sei segundoko aldea atera zion Mintxetako helmugan Lander Lartitegiri (Basati Bike Busturia) eta 11 segundokoa Jon Arakama taldekideari. Josu Alvarez (Ciclos Iturriaga) izan zen lehen elgoibartarra. Hamargarren postuan sailkatu zen, irabazlearengandik 39 segundora. Etxeko taldeko txirrindulariak maila onean aritu ziren eta Ciclos Iturriaga hirugarren sailkatu zen taldekako sailkapenean, Mikel Perez de Obanosek (16. postua), eta Jon Ibarluzeak (23. postua) lortutako postuei esker. 146 txirrindulari batu ziren irteeran eta 98k lortu zuten proba amaitzea.

Nesken futbola, plazara



C.D. Elgoibarrek Nesken Futbolaren Eguna antolatu du gaurko (apirilak 13), Realeko teknikarien laguntzarekin. Nesken artean futbola sustatzeko helburuarekin, Kalegoen plazan arituko dira futboleant, 18:00etatik 20:00ak bitartean. Parte hartzaileen artean Realeko emakumezkoen taldeko jokalariek sinatutako kamiseta bat zozketatu dute. C.D. Elgoibarrrek iaz ere antolatu zuen futbola herritarrei gerturatzeko ekimena klubaren mendeurrena ospatzeko antolatutako ekintzen barruan, eta Futbol Eskolako umeak Kalegoen Plazan, Plaza Txikian eta Lekuederreko kantxan aritu ziren futboleant.

Kilimon Trail, zapatuan

Zapatu honetan, apirilaren 14an, jokatu da zortzigarren Mendaroko Kilimon Trail mendi lasterketa. Antolatzailerek zailtasun ezberdineko bi ibilbide prestatu dituzte: motza, 11 kilometro eta 600 metroko desnibel positiboduna, eta luzea, ohikoa, 23 kilometro eta 600 metroko desnibel positiboduna. Lasterketa 16:00etan abiatuko da. Maite Maiora (Mendaro, 1982) eta Julen Larruzea (Larrabetzu, 1982) gailendu ziren iazko edizioan, eta haienak dira denbora onenak, 1.56.26 eta 2.16.45, hurrenez hurren.




Mugertza krosak ANOC Sari Berezia jasoko du Elgoibarren egingo duten galan



Kros Antolatzaileen Espainiako Elkarteak (ANOC) Elgoibar aukeratu du 2018ko gala ospatzeko, Mugertza krosaren 75. urteurrenarekin bat eginez. Herriko Antzokian izango da, zapatuan, 19:00etan, eta 2017-2018 kros denboraldian nabarmendu diren atleta eta erakundeak sarituko dituzte, eta horien artean Mugertza krosak jasoko du ANOC Sari Berezia. Ekitaldia hasi aurretik, 18:15etik aurrera, Euskal Telebistak Mugertza Krosaren 75. urteurrenari buruz eginiko dokumentala, *Mugertza, Elgoibar Munduratu duen krosa* izeneko, eskainiko dute Herriko Antzokiko zine pantailan. Gazteleraz emango dute. Asteburuari bukaera emateko, urteko bilera ere Elgoibarren egingo du ANOCek. Kros antolatzaileak Elgoibarko udaletxeko pleno aretoan batzartuko dira domekan, hilaren 15ean, 10:00etatik aurrera.

Alai Romero hirugarren, Candanchu Ski Clubak antolatutako proban



Eski lasterketetan aurreneko postuetan lehiari aritzen diren eskiatzaile elgoibartarrek ziurtatuta dute belaunaldi erreleboa. Elgoibarko lau eskiatzaile gaztetxok astero hartu dute parte eski ikastaroetan, Discovery izeneko taldean, eta ikasitakoa praktikan jartzeko aukera izan zuten Candanchu Ski Clubak eski denboraldiari amaiera emateko antolatutako lasterketa sozialean. Andrea Cornejo, Terese Guenetxea, Ibon Iparragirre eta Alai Romero dira eskiatzaile elgoibartarrak. Alai hirugarren postua eskuratu zuen proban, eta seigarrenean sailkatu zen Andrea, sei urterekin taldeko gazteena izanagatik lasterketa bikaina eginda.

Markel Kerexeta xakelariak bederatzigarren postua lortu du Euskal Herriko Txapelketan



Jubenil mailako Euskal Herriko Xake Txapelketan lehiatu da Markel Kerexeta elgoibartarra eta bederatzigarren postuan sailkatu da. Hamabost xakelarik hartu dute parte txapelketan, zazpi bizkaitarrek, lau arabarrek, bi nafarrek eta bi gipuzkoarrek. Apirilaren 3tik 7ra bitartean jokatu dituzte elkarren aurkako partidak, suitzar erara, Eibarko Unibertsitatean. Kerexetak sei partida jokatu zituen, erdiak irabaziz eta beste erdiak galduz. Tamalez ezin izan zuen lehen partida jokatzerara agertu eta galdutzat eman zioten partida hori. Aritz Morantek irabazi zuen txapelketa 7 partidatan 6,5 puntu lortuta..

Anfibioak ezagutzeko irteera, Ander Izagirrerekin

Ander Izagirre elgoibartarraren gidaritzapean, anfibioak ezagutzeko irteera egingo dute gaur gauean. Morkaiko mendi taldeak Elgoibar eta inguruetako natura eta mendiko ondarea ezagutzeko antolatu dituen bederatzigarren irteeretako lehena izango da. IMHko aparkalekutik abiatuko dira 20:00etan, eta izena emateko bi modu daude: morkaiko@morkaiko.eus e-postara idatzita edota 636 994 798 telefono zenbakira deituta.



LANA.....
Eskaerak

Garbiketari edo adineko pertsonen zaintzan lan egiteko prest. Orduka edo etxeko langile modura.
☎ 637 966 749

Adineko pertsonak zaintzen lan egiteko prest.
☎ 632 729 261

Adinekoak zaintzen egingo nuke lan. Bederatzi urtez egon naiz adineko bat zaintzen. Elisabet.
☎ 621 376 202

Adinekoak zaintzen egingo nuke lan. Orduka edo etxeko langile modura. Erreferentziak dauzkat.
☎ 632 504 190

Pertsona arduratsua lan bila, adinekoak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko.
☎ 632 877 170

Adinekoak zaintzen egingo nuke lan. Asteburuetan ere bai. Esperientzia daukat.
☎ 631 406 177

Pintore lan bila. Esperientzia daukat eta astehenetik igandera libre.
☎ 691 441 727

Adinekoak eta umeak zaintzen egingo nuke lan.
☎ 631 620 344

Adinekoak zaintzen egingo nuke lan. Gauetan ere bai.
☎ 632 733 573

Adinekoak zaintzen egingo nuke lan. Asteburuetan bakarrik.
☎ 631 655 390

Adinekoak zaintzen egingo nuke lan. Garbiketari lanak ere egiten ditut. Esperientzia eta erreferentzia onak dauzkat.
☎ 626 407 923

Adinekoak zein umeak zaintzen egingo nuke lan.
☎ 657 438 357

Adinekoak zein umeak zaintzen egingo nuke lan. Orduka eta asteburuetan ere bai.
☎ 631 558 243

Adinekoak eta umeak zaintzen egingo nuke lan. Garbiketari lanak ere egiten ditut.
☎ 688 652 050

Taberna zerbitzari lanetan edo sukaldako laguntzaile lanetan aritzeko prest.
☎ 632 983 756

Zerbitzari gisa lan egiteko prest.
☎ 687 940 566

Adinekoak zainduko nituzke. Etxeko langile moduan aritzeko ere prest.
☎ 638 338 816

Adineko pertsonen zaintzan eta garbiketari lan egiteko prest. Orduka edo etxeko langile modura.
☎ 642 290 762

Adineko pertsonak zaintzeko prest, etxeko langile modura.
☎ 617 414 989

Elkarrean garbiketari edo pertsona nagusiak zaintzen, etxean zein ospitalean, lan egiteko prest. Esperientzia eta ikasketak dauzkat.
☎ 671 989 434

Adineko pertsonak zaintzeko eta garbiketarako prest. Esperientzia eta erreferentziak ditut.
☎ 646 821 678

Adineko pertsonak zaintzeko prest, baita etxeko langile moduan ere. Esperientzia handia.
☎ 602 193 095

Adineko pertsonak zaintzeko prest, baita etxeko langile moduan ere. Esperientzia handia.
☎ 612 016 458

Adineko pertsonak eta gaixoak ospitalean zaintzeko prest. Orduka eta etxeko langile gisa.
☎ 632 949 742

Lan bila nabil. Digitalizazioan esperientzia handia.
☎ 602 819 349

Lan bila nabil. Garbiketari, zerbitzari, baserriko lanetan... aritzeko prest.
☎ 602 072 969

Adineko pertsonak zaintzeko zein garbiketari edo tabernetan lan egiteko prest. Esperientzia handia.
☎ 686 077 316

Adineko pertsonak edo umeak zaintzeko zein garbiketari lan egiteko prest. Orduka edo etxeko langile gisa.
☎ 602 047 812

Garbiketari lanetan aritzeko zein adineko pertsonak edo umeak zaintzeko prest.
☎ 685 724 861 / 943 748 899

ETXEBIZITZAK.....
Etxebizitza hartuko nuke alokairuan Elgoibarren.
☎ 677 529 560

Etxebizitza hartuko nuke alokairuan Elgoibarren.
☎ 632 983 756

Elgoibarren, berehala sartzeko etxebizitza bila gabiltza. Bikote arduratsua.
☎ 683 415 222

GARAJEAK.....
Marradun garajea salgai Leku Ederren.
☎ 615 707 857

OSPAKIZUNAK.....
1943an jaio eta aurtien 75 urte betetzen dituzten elgoibartarrek edo Elgoibarren bizi direnek, bazkaria egingo dute apirilaren 28an Sigma jatetxean. Interesdunek 50 euro sartu beharko dituzte apirilaren 24a baino lehen Laboral Kutxako kontu zenbaki honetan: ES72 3035 0007 2900 711 35212. 12:30ean ospakizun erlijiosoa egingo dugu San Bartolome parrokiari, gero argazkia aterako dugu eta 13:00etan luntxa egingo dugu. 14:30ean bazkaria Sigma jatetxean izango da.

1968an jaio eta aurtien 50 urte betetzen dituzten elgoibartarrek edo Elgoibarren bizi direnek ospakizuna egingo dute maiatzaren 5ean, Sigma jatetxean. Interesdunek 68 euro (luntxa, bazkaria, gaueko mokaduxoa eta argazkia) sartu beharko dituzte apirilaren 15a baino lehen kontu zenbaki honetan: ES87 3035 0007 22 0071134606. Kontakturako: 50kintada1968elgoibar@gmail.com edo [facebook/elgoibarkintada](https://www.facebook.com/elgoibarkintada).

1932an jaioetako elgoibartarrek edo Elgoibarren bizi direnek, ospakizuna egingo dute apirilaren 28an. 12:30ean Maialako elizan meza izango dute eta 14:30ean bazkaria Ibai-Ondo erretegiari. Interesdunek Castrillejo estankoa eman behar dute izena apirilaren 23a baino lehen.



administradores
Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas
Fundación Vasco Administradores Iruñeko Eskola

ROSA MA PINTADO

Etxaldean Administrazio-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679
rosapf@telefonica.net

Orain dela aste batzuk izandako bilera baten etxerabe batek eskatu zuen aktan jasotzea berak eta beste jabe batek batzarraren egindako adierazpenak. Izan ere, bere ustez, funtsezkoak dira gai zerrendako puntu batean. Jakin nahi nuke akta horretan bilera gertatutako guztia jaso behar al dugun ala hartutako erabakiak besterik ez.

Legez, aktak hartutako akordioak jaso behar ditu, baita aldeko eta kontrako botoak eman dituzten jabeen izenak eta dagozkien parte-hartze kuotak, baldin eta eraginik badute akordioaren balioztasunean. Legea gutxieneko eduki batzuk jartzera mugatuta dago, akordioaren edukia aipatuz, baina hainbat kontu idatziz ez jasotzeak akta baliogabetzea eragin gabe. Beraz, aktaren edukia, etxerabeen adierazpenak, idatziak edo beste dokumentu batzuk jaso gabe, hartutako erabakietara mugatzea, legearekin bat dator.

Aholkua: Ez da ez beharrezkoa, ez derrigorrezkoa ezta galagarria ere aktan jasotzea bilera osoan barrena gertatutako guztia: etxerabeek esandakoa, emandako idatziak, egindako eskariak zein adierazpenak. Jabekideen idatziak batzea ez da aurreikuspen legala, beraz, hori ez egitea ez da legezko akats bat eta are gutxiago akta balio gabe uzteko arrazoi bat. Hortaz, erabakitakoa baino ez da modu zorrotzean jaso behar.

Enpresa kolaboratzailea: **NORFO** P. M. Urruzuno kalea, 6 - Elgoibar



Argazkiak eguzten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENeke bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



Zorionak, **Eulali**, apirilaren 5ean 6 urte egin zenituelako. Muxu handi asko, familiakoen partez.



Zorionak, **Mar-kel**, 10 urte bete dituzulako. Segi jator! Etxeko guztien partez, eta bereziki Eneko eta Beñaten partez.



Zorionak, **Xabat**, 8. urtebetetzean. Bereziki zure anaia Manex eta Unai-ren partez. Aupa zu!



Zorionak, **Libe!** Muxu potolo bat etxekoekin partez!



Gure bihurriak 2 urte astelehenean! Zorionak eta patxo bat, **Libe**, etxekoekin partez, eta bereziki, neba Lukenen partez.



Zorionak eta mila patxo etxeko **txi-tinarentzako**. Jarraitu beti bezain alai! Familiakoen eta bereziki Unai-xen partez.



Zorionak gure txapeldunari, 17an 9 urte beteko dituelako. Muxu bat familiakoen partez, bereziki Anderren partez.




Zorionak, **Ibon!** Igdandean 4 urte beteko dituzu. Ondo pasatu zure egunean. Etxekoekin partez, muxu potolo bat.



Zorionak gure etxeko altxorrari! Atzo 3 urte handi, txapeldun! Mila patxo etxeko guztien partez.



Gaur arte bezain zoriontsu izaten jarraitu bixartik aurrera. Egun mundiala pasatzeko prest gaude gu. Zorion-muxu bana, etxekoekin partez.



Zorionak, **Manex eta Magali!** 6 urte! Muxu eta besarkada handi bana denon partez.

PPB 183/12

Uzuri ELGOIBAR - DEBA
optika audio

San Frantzisko, 21 - Elgoibar
Tel.: 943 740 359 www.uzurioptika.com

Probatu itzazu lentillak doan, graduazio guztietarako.

Hain dira erosoak, ezer ez daramazula irudituko zaizula.

Alcon A Novartis Division
8170422104, 035163800301

LEHIAKETA!

25. urteurrenaren harira, 'Barren beti gainean' argazki lehiaketa antolatu du BARRENEK.

BARREN beti gainean

Klik!
Klik!
Klik!

Argazkiak bidali honako helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus. Argazki guztiak www.barren.eus webgunean zintzilikatuko ditugu.

BARREN zenbaki batekin atera argazkia nahi duzun lekuan eta bidali! Apirilaren 13ra arteko epea daukazue. Parte hartzen duzun guztien artean Emigorak emandako bi otar zozketatuko ditugu, eta apirilaren 20ko zenbakian emango dugu irabazleen berri.

Gaur azken eguna argazkiak bidaltzeko!

25
URTE
BARREN

13 BARIXAKUA

18:30 Erakusketa: Egur arte tailerreko umeen artelanak: margoak, marrazkiak eta zeramikak. Astelehenetik barixakura, 18:30etik 20:30era eta larunbatetan 12:00etatik 14:00etara. Apirilaren 21era arte. Antolatzailea: Egur. Kultur Etxeko erakusketa gelan.

18:30-20:30 Odol ateratzea. Elgoibarko Odol-Emaitzen Elkartearen (Anbulategi ondoan).

17:00-20:00 Futbol Eskolaren Eguna. Antolatzailea: C.D. Elgoibar. Kalegoen plazan eta Leku Ederren.

17:30 Kiribil. Antolatzailea: Elgoibarko Izarra. Maalako parkean.

20:00 Anfibioko ezagutzeko gaueko irteera. Gidaria: Ander Izagirre Egaña. Izenematea: 636 994 798 zenbakian edo morkaiko@morkaiko.eus e-posta helbidetan. Elkartzeko lekua: IMHko aparkalekua.

20:00 Antzerkia: *Ergela* (Euskaraz). Txalo produkzioak. Sarreraren salmenta: Kutzabanken, zapatuan leihatilan 19:15etik 21:45era, eta egunean bertan, leihatilan. Herriko Antzokian.

23:00 Alvert Cavalier taldearen kontzertua. Sutegixa gaztetxean.

14 ZAPATUA

19:00 Anoc gala. Antolatzailea: Mintxeta Atletismo Taldea eta 75. Urteurreneko Batzordea. Herriko Antzokian.

16:00 Mendi lasterketa: Kilimon Trail. Antolatzailea: Mendaroko Txirrindulari Elkartea. Mendaroko plazan.

15 DOMEKA

12:30 Kontzertua: Elgoibarko Udal Musika Banda. Herriko Antzokian.

16:30 Familia antzerkia: *Hiru ipuin, Tomaxen abenturak*. Sarreraren salmenta: Kutzabanken, zapaturo leihatilan 19:15etik 21:45era, eta egunean bertan, leihatilan. Herriko Antzokian.

16 ASTELEHENA

18:00-20:00 Emakumeentzako tailerra: *Garapen pertsonala irakurketaren birtartez*. Dinamizatzailea: Loredi Salegi. Antolatzailea: Jabekuntza tailerrak. Gortzon Garate Udal Liburutegian.

17 MARTITZENA

18:00-20:00 Gurasoentzako formakuntza: *Sexualitatea: Nola lagundu gure seme-alabei?*. Desirak S.L. sexologia eta genero zerbitzuak. Antolatzaileak: herriko ikastetxetako guraso elkarteak eta Udalaren Ongizate Saila. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

19:00 Bizikidetza ereiten mahai-ingurua: *Bizikidetzaren alde lanean: Gaur egungo erronka*. (Bermeak berriro gerta ez dadin: memoria, justizia, biktimak, presoak, herritarren parte hartzea). Hizlariak: Paul Rios, Zuriñe Rodriguez eta Jon Mirena Landa. Antolatzailea: Elgoibarko Udala. Musika Eskolako auditoriumean.

18 EGUAZTENA

18:00 Uxue Alberdi idazlearekin solasaldia Mendaroko liburutegian.

19 EGUNA

20:00 Elgoibarko Isiltasun Eskolaren topaketa. Gidaria: Jose Cruz Igartua. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

20 BARIXAKUA

21:30 Zine foruma: *Aprendiendo a conducir*. Gidaria: Loredi Salegi. Antolatzailea: Haizea. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

23:00 Kontzertua: The Riff Truckers. Antolatzailea: Sinüose. Kultur Etxeko sotoan.



SAMSUNG 49"
Full HD TV

549€

**LED SAMSUNG 49"
UE49M5505AKXXC
TELEBISTA**

A+
3xHDMI
2xUSB



419€

**SIEMENS WM12T469ES
GARBIGAILUA**

8 kg / A+++
1200 RPM
VARIOSPEED
(%65 azkaragoa, emaitza bikainak)
WATERPERFECT
(Kargaren arabera kontsumoa kontrolatzen du)

479€

**AEG HK633220FB
INDUKZIOA**

3 gune
28 cm gune erraldoia
Touch control

**MILAR
BIRE**

Ubitarte, 11
943 741 487
bire@milar.es

Dendako prezioak.
Produktuak agortu arte.

Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK		Egunez: 09:00-20:00		Iluntzean: 20:00-22:00		Larunbatak: 9:00-14:00 (*)	
13 BARIKAKUA	14 ZAPATUA	15 DOMEKA	16 ASTELEHENA	17 MARTITZENA	18 EGUAZTENA	19 EGUENA	20 BARIKAKUA
Egunez *Ibañez	Egunez Garitaonandia	Egunez Garitaonandia	Egunez Etxeberria	Egunez *Fernandez	Egunez Garitaonandia	Egunez *Oruesagasti	Egunez Barrenetxea
Iluntzean Yudego	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Etxeberria	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Etxeberria	Iluntzean Barrenetxea

* Fernandez:
Herriko enparantza 4,
Garagartza (Mendaro)
943 756 142

* Ibañez:
Rekalde, 1 (Soraluze)
943 751 638

* Oruesagasti:
Kalebarren, 9 (Soraluze)
943 751 384

Urte guztian, gauzez: 22:00-09:00
La Fuente - Sostoa kalea, 10 (Eibar)
943 254 410

Zinea (Herriko antzokian)

'Sin rodeos'

14 zapatua, 22:15 (VOS)
15 domeka, 19:00
16 astelehena, 21:30


'Van Gogh'

(Ongarri zine kluba)
19 eguena, 22:15 (VOS)

Martxoan hildakoak

- **Dora Sanz Sanz**
91 urte, martxoak 10
- **Felix Arregi Bastida**
80 urte, martxoak 11
- **Jesus Arakistain Makazaga**
73 urte, martxoak 13
- **Marcelo Ladron Marin**
88 urte, martxoak 18
- **Luis Leiaristi Askasibar**
66 urte, martxoak 18
- **Isabel Guerra De Nova**
82 urte, martxoak 22
- **Milagros Irusta San Sebastian**
92 urte, martxoak 24
- **Teresa Txurruka Arrizabalaga**
91 urte, martxoak 27



ETXEBERRIA

EHORZKETA-BEILATOKIA

943 741 327 (24 orduz)

635 756 295

629 635 203

Santa Klara, 16 - Elgoibar
info@funerariaetxeberria.com
www.funerariaetxeberria.com

Kutxak, trasladoak eta koroak.
 Norbanakoei eta konpainiei zuzenduriko zerbitzuak.
 Erietxe zentruetan zerbitzuak.



Manu Sanchez



Unai Villena



Argi neukan uea iristean ez nuela errepikatuko aurretik besteri mila aldiz irakurritako agur horietako bat, baina hara non, hementxe naukazue agur zozo hau idazten. 2015eko urtarrilean esan zidaten atal berri bat sortzeaz zirela BARRENEAN, herriko idatzi zale eta argazkilari afizionatuak batuko zituena binaka, hilean behin-edo kolaboratuz txandaka, ea parte hartuko al nuen. Zalantzarik gabe erantzun nien baietz, norekin aritzea tokatuko zitzaidan jakin-minez. Ez nuen Manu ezagutzen, bilera-gelan aurkeztu zidan Ainhoak, aurretiaz esanda “oso jatorra da, ondo moldatuko zarete”, eta bete-betean asmatu zuen: niretzat plazerra izan da, eta oso erraza, Manurekin lan egitea. Bere argazkiek beti jarri dizkidate begien parean hausnartzeko hamaika gai. Argazki horiek izan dira gure *Hitz eta Klik* gehienen abiapuntua, nahiz eta batzuetan alderantziz egin dugun eta nire testuetatik abiatu; horrela, aldizka, biok bizi izan dugu baldintzatuta sortu beharraren erronka, ziurgabetasuna eta azken uneko adrenalina.

Ia hiru urte hauetan argitaratu ditugun 20 kolaborazioetako hitzak idazteko oinarritu naiz sentsazioetan, oroitzapenetan, galderetan, bakarren batean amorru edo minean, betiere saiaturaz literatura sortzen, dosi homeopatikotan bada ere, balizko irakurlearengan (zuga) zer edo zer pizteko ahaleginean. Lortu ote dudan ez dakit. Dakidana da etapa hau ixteko garaia iritsi zaidala, beste norbaiti tokia uztekoa eta lekukoa ematekoa, eskerrik asko eta hurren arte esatekoa: kalean eta sare sozialetan egingo dugu topo. Eta astekari honen irakurle izateak ere batuko gaitu aurrerantz. Zorionak eta luzaroan jarrai dezala Elgoibarko eta Mendaroko etxeetara iristen astero-astero, gutxienez beste 25 urtez!

“Eta astekari honen irakurle izateak ere batuko gaitu”




I. URTEURRENA

Jose Ignacio Sarasua Garate

2017ko apirilaren 11n hil zen, 60 urte zituela. Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, apirilaren 14an, 19:00etan, Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.

***Gure ondotik joan zara,
baina betiko izango zaitugu
gure bihotzetan.***

Familia



I. URTEURRENA

Jose Ignacio Sarasua Garate

***Izan zarenagatik
eta erakutsi duzunagatik,
ez zaitugu inoiz ahaztuko.***



HARITZ



I. URTEURRENA

Jose Ignacio Sarasua Garate

Zure oroimenak indartzen gaitu.



ELGOIBARKO UDALAREN
TXISTULARI TALDEA

Euskara ez daukagu saltzeko!

Atera selfiea!

eta irabazi erosketa txartelak
Apirilaren 13tik maiatzaren 17ra



643 499 169

gureanbaielgoibar@gmail.com

